

**29/2024 TXOSTENA, URRIAREN 23KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU  
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO  
SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUENA.****I.- AURREKARIAK.**

18/2024 Dekretuaren 2. artikulua araberan (18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen), sail hauek izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak:

- a) Kultura eta Hizkuntza Politika.
- b) Ekonomia, Lana eta Enplegua.
- c) Ogasuna eta Finantzak.
- d) Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua.
- e) Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna.
- f) Segurtasuna.
- g) Hezkuntza.
- h) Etxebizitza eta Hiri Agenda.
- i) Osasuna.
- j) Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa.
- k) Mugikortasun Jasangarria.
- l) Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza.
- m) Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa.
- n) Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza.
- o) Justizia eta Giza Eskubideak.

Halaber, 18/2024 Dekretuaren 18. artikulua honako egiteko eta jardun-arlo hauek esleitzen dizkio Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari:

- a) Turismoa.
- b) Merkataritza.
- c) Merkataritza-, industria- eta nabigazio-ganberak.



- d) Kontsumoa.
- e) Prezioen politika.
- f) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- g) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak.

Artikulu horren bigarren apartatuak zehazten du Sail horri atxikita daudela «Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua» administrazio-organismo autonomoa eta «Basquetour – Turismoaren Euskal Agentzia SA».

Azkenik, azken xedapenetako lehenengoan esaten da sailburuek beren sailei dagozkien erregelamendu organikoen proiektuak aurkeztuko dizkiotela lehendakariari, 2024ko urriaren 31 baino lehen, onar ditzan. Proiektu horiek gobernu-programan sailei izendatutako jardun-arlo bakoitzerako aurreikusitako helburuetara eta printzipio gidarietara egokitu beharko dira.

Hortaz, dekretu-proiektua egitea sustatu da, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta, horren bidez, 18. artikulu horretan esleitutako arloei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.

2024ko urriaren 17an, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu zen espedientea (erreferentzia: DNCG\_DEC\_6486/24\_14), eta, bertan, txostenerako interesgarriak diren agiri hauek daude:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria.
- Dekretua egiteko prozedura hasteko agindua.
- Proiektua alde aurretik onartzeko agindua.

Dekretu-proiektuak osagai hauek ditu: 10 artikulu, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

## **II.- ESKUMENA.**



Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, 116/2016 Dekretuak 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz (116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzekoa; aurrerantzean, 116/2016 Dekretua); izan ere, xedapen orokor bat da, eta xedapen orokor horren edukiak kontratazio publikoaren eremuari eragiten dio, partzialki, eta Gobernu Kontseiluari dagokio hura onartzea.

Bestalde, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuko a) letraren arabera, Batzorde Iraunkorrak beteko du egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez Aholku Batzordeak duen aholkularitza-eginkizuna.

Irismenari dagokionez, dekretu-proiektutik sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten esparruak soilik jorratuko dira txosten honetan; izan ere, kontratazio publikoaren gaineko eskumenak bakarrik dagozkie Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari.

### III.- KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK.

Orain, kontratazio publikoari buruzko proiektuaren artikulua agertuko ditugu:

*«5. artikulua.– Zerbitzu Zuzendaritza.*

*1.– Zerbitzu Zuzendaritzari dagozkio, zuzenean sailburuaren mende eta sailburuordetzarekin koordinatuta, eskudantzia hauek:*

*[...]*

*i) Jardun-arloaren barneko espedienteen ondoriozko gastua baimentzea, baimen hori beste organo baten eskumena ez bada.*

*[...]*

*2.– Zerbitzuen zuzendaria izango da sailaren kontratazio-organoa. Nolanahi ere, Gobernu Kontseilua baimena behar da aurrekontu-legeek ezarritako muga kuantitatiboak gainditzen dituzten kontratuak edo esparru-akordioak egiteko.*

*a) Zerbitzuen zuzendaria izango da, halaber, Sailarentzat Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren bitarteko propio pertsonifikatuei enkarguak egingo dizkiena.*

*b) Zerbitzu Zuzendaritzaren eskumena izango da kontratazio-espedienteak eta saileko bitarteko propio pertsonifikatuei egiten zaizkien enkarguak izapidetzea.*

*6. artikulua.- Sailburuordetza.*

*1.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko sailburuordea sailburuaren mende egongo da zuzenean eta hierarkikoki, eta jardun-arlo hauek zuzendu eta koordinatuko ditu:*



[...]

m) Bere jardun-arloaren barnean hartutako espedienteen ondoriozko gastua baimentzea, non eta baimen hori ez den beste organo baten eskumena.

[...]

r) Bere gain hartzea, bere sailean eta bere eskumeneko esparruetan, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko erantzukizuna, bat etorri Gobernu Kontseiluak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean ezarritakoarekin.

s) Saileko hizkuntza-normalizazioaren ardura bere gain hartzea eta bere eskumeneko esparruetan euskararen erabilera bultzatzea, zerbitzu- eta lan-hizkuntza izan dadin, herritarren hizkuntza-eskubi-deak bermatzeko, bat etorri Gobernu Kontseiluak onartutako Euskararen Agenda Estrategikoarekin.

[...]

7. artikulua.– Eginkizun orokorrak.

Saileko zuzendariei dagokie, zuzenean eta hierarkian sailburuordearen mende, edo, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzaren eta Zerbitzu Zuzendaritzaren kasuan, sailburuaren mende, honako esku-dantzia orokor hauek baliatzea:

[...]

m) Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planeko helburuak definitzea beren arloan, eta helburu horiek lortzeko ekintzak eta ekimenak gauzatu eta ebaluatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken kudeaketa integratua eginez, beren zuzendaritzako zerbitzuekin lankidetzan; hori guztia Zerbitzu Zuzendaritzaren gidaritzapean eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin elkarlanean.

n) Zerbitzu Zuzendaritzaren zuzendaritzapean eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan, bere eremuan indarrean dagoen Hizkuntza Normalizaziorako Planaren helburuak zehaztea, eta helburu horiek lortzeko ekimenak garatu eta ebaluatzea, euskararen kudeaketa integratuaren bidez, zuzendaritzako arduradunekin lankidetzan.

[...]

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu honek aipatzen dituen organoetako titularren postuak hutsik geratuz gero, edo haien absentiaren edo gaixotasunaren kasuetan, haiei esleitutako egitekoak eta eskumenak hierarkian gorago dagoen organoko titularrak baliatuko ditu, saileko titularrak berariazko ebazpena eman ezean, bi kasu hauetan izan ezik: Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzarenean eta Zerbitzu Zuzendaritzarenean, haiek elkar ordezkatzeko baitute».

116/2016 Dekretuaren 6. artikulua haxe agintzen du: «Administrazio orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organoak [...], salbu eta besterik xedatzen bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan [...].»

Ahalmen hori baliatuz, dekretu-proiektuak aurreikuspen hauek ditu:



5.2 artikulua ezartzen du Zerbitzuen zuzendaria izango dela sailaren kontratazio-organoa. Nolanahi ere, Gobernu Kontseiluaren baimena behar da aurrekontu-legeek ezarritako muga kuantitatiboak gainditzen dituzten kontratuak edo esparru-akordioak egiteko.

Zuzendaritza horren titularra izango da, halaber, Sailarentzat Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren bitarteko propio pertsonifikatuei enkarguak egingo dizkiena. Era berean, esaten du Zerbitzu Zuzendaritzaren eskumena izango dela kontratazio-espedienteak eta Saileko bitarteko propio pertsonifikatuei egiten zaizkien enkarguak izapidetzea.

6.1.m) artikulua, Sailburuordetzari buruzkoak, ezartzen duenez, sailburuordetzaren eskumena dela bere jardun-eremuan sartutako espedienteen ondoriozko gastua baimentzea, non eta baimen hori ez den beste organo baten eskumenekoa.

Bitarteko propio pertsonifikatuei egin beharreko enkarguei buruzko eskumenari dagokionez, 116/2016 Dekretuaren IV. tituluan aurreikusitako baldintzetan egiteko berariazko aurreikuspena sartzea gomendatzen da.

Bitarteko propio pertsonifikatuari egiten zaion enkargua lankidetzaren modu publiko bat da; ez da kontratuzkoa, eta lizitazioari lotuta ez dauden edukiak ditu, nahiz eta obrei, zerbitzuei eta hornidurei buruzkoak izan. Lankidetzaren modu horretan, kontraprestazio ekonomikoa eman behar da, eta kontratatzailearen profilean nahitaez argitaratu beharra dago; kontratu-errekurtsoen auzitegiaren errekurtsoa jartzeko aukera ere badago.

Batzorde honen beste txosten batzuetan adierazi den moduan, kontratazio publikoaren eremua murrizteak lehiaren eta efizientziaren gaineko arriskuak ekar ditzakeenez, bitarteko propioei mandatuak egin ahal izateko, arazoitu egin beharko da, eta alderdi hauek islatu, besteak beste: mandatua egiten duen entitateak ez daukala zuzeneko bitarteko nahikorik; mandatua jasoko duen entitatea egokiena dela formalki (bat dator helburu sozialarekin) eta materialki (bitarteko egoki nahikoa duela), eta, halaber, kudeaketako efizientzia-arrazoiak daudela.

Era berean, egokitzen jotzen da enkarguak egiteko eskumena proiektuan adierazitako organoari esleitzea; izan ere, horrela efizienteagoa eta eraginkorragoa izango da egingo den kontratazio publikoa..



Euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntza-irizpideak txertatzeko eskumena dela eta, 6.1s) eta 7.n) artikuluei dagokienez, berariaz aipatu behar da Gobernu Kontseiluak 2023ko ekainaren 6an onartu zuen eta egun indarrean dagoen erabakian adierazitakoaren arabera garatu behar dela eskumen hori (Erabakia, 2023ko ekainaren 6koa, Gobernu Kontseiluarena, zeinaren bidez onartzen baitira hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako entitate guztietan aplikatu beharrekoak).

Bada, aipatu berri den erabakian ezarritakoaren arabera, EAEko Sektore Publikoak egiten dituen kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, bi helbururekin: batetik, herritarrei bermatzea erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak; bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzea.

Era berean, kasuan-kasuan kontratuaren helburua zein den, halako hizkuntza-betekizunak ezarriko dituzte administrazio-klausula partikularren agirietan. Ildo horretatik, kontratuaren xedea bete egin behar du bere izaeratik eta zerbitzuaren titularra den entitatearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.

Orobat, herritarrei arreta ematea eskatzen duten edo xedea zerbitzu bat ematea duten kontratuetan, proportzionaltasun-printzipioa bermatu behar da kontratuaren preskripzio teknikoetan, kasuan kasuko ezaugarrien, helburuaren eta hartzaileen arabera; kontratuaren bidez bete behar diren eginkizunei lotu behar zaizkie, eta bitarteko propioen edo besteren bitartekoen bidez egiaztatu ahal izango ditu enpresak.

Kontratua betearazteko baldintzen artean, entitate kontratatzailearen eta adjudikaziodunaren arteko harremanetan erabiliko den hizkuntzari buruzko alderdiak txertatu ahal izango dira.

Alabaina, kontuan hartu behar da hizkuntza-klausulak ezin direla ezarri eskatzen diren kaudimen teknikoko betekizunen artean.

Txosten honen xedea ez bada ere, gomendatzen da, hitzarmenak sinatzean, arreta berezia jartzea eta egiaztatzea benetan ez direla kontratuak, kontraprestazioetan duten kostu bidezko izaeratik.

Kontratazioaren arloan aurkezten diren administrazio-errekurtsoei dagokienez, modu orokorrean jasota dago 6.1.j) artikuluan (Sailburuordetzari buruzkoa). Sailburuordetzaren

esku uzten da haren mendeko zuzendaritzetako titularrek hartutako ebazpenen aurka jarritako errekurtsioak ebaztea. Eta 3.1.h) artikulua, berriz, sailaren titularrari edo sailburuari esleitzen dio saileko organismo edo agintariek emandako ebazpenen aurka aurkeztutako errekurtsioak ebaztea, non eta beste organo baten eskumena ez diren.

Erosketa publiko estrategikoaren arloan, gomendatzen da kontuan hartzea 116/2016 Dekretuaren 27.b) artikulua arabera Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak informatu egin behar duela kontratazio publikoan xede hauetarako neurriak hartzeko proposatzen diren mekanismoez: «Helburu sozialak, ingurumenaren arlokoak, helburu linguistikoak eta aukera-berdintasunari dagozkionak bermatzea, alor horietan eskumena duten erakundeek proposatuta».

Ilido horretan, nabarmentzekoak dira ingurumen-klausulen eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan onartutako jarraibideak. Zehazki, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa 2030 ezartze aldera, 2023ko martxoaren 7ko 1/2023 Jarraibidea onartu zen, kontratazio publikoko prozeduraren une desberdinetan ingurumen-klausulak sartzeko eta programa horrek ezartzen zituen lehentasunetara egokitzeko.

Halaber, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua indarrean jartzearen ondorioz — 1/2023 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena—, 1/2024 Jarraibidea onartu da, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzkoa. Jarraibide horrek orientabideak eskaintzen ditu genero-ikuspegia eta berdintasun-klausulak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren, Administrazio Institutuzionalaren eta sektore publikoko gainerako entitateen kontratazio publikoan txertatzeko moduari buruz. Horren guztiaren xedea da laguntza ematea legearen testu bategin horretan (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) kontratazio publikoari buruz xedatutakoa aplikatzeko; bereziki, 22. artikuluan dioena. Nolanahi ere, kontratazio publikoa arautzen duen esparruak ezarritakoa errespetatzen dela bermatu beharko da.

Kontuan hartuta esandakoa, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, baldin eta dekretu-proiektu horren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta aholkuen arabera egokitzen bada.